

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

463

93/2024 EBAZPENA, abenduaren 20koa, Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Gorka Prada Rodríguez jauna izendatzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitaleko Zeladoreen Arduradun, izendapen askez.

Abuztuaren 2ko 63/2024 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitaleko zeladoreen arduradun lanpostua izendapen askez betetzeko.

Epaimahaiak aurkeztutako eskabideen balorazioa eta dagokion izendapen-proposamena egin ondoren, eta Gorka Prada Rodriguez jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kon-tuan izanik, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitaleko zeladoreen arduradun, izendapen askez.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Gorka Prada Rodriguez jauna izendatzea zeladoreen arduradun, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitalean.

Bigarrena.– Izendapen honek 2024ko abenduaren 21etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak honako hau eragingo du: langilea beste lanpostu funtzional batera lekualdatuko da, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko die. Hain zuzen, ezaugarri berberak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurralde-eremu berberetan. Atxikitze horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunei ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gorliz, 2024ko abenduaren 20a.

Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentea.

EB (3433/2004 Ebazpena, abenduaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentearen edo zuzendarien karguak hutsik edo kargudun horiek kanpoan zein gaixorik daudenerako ordezkapen-erregimena ezartzen duena).

Gorlizko Ospitaleko zuzendari medikoa,
MARIA ISABEL MONTES ÁLVARO.